

TXIRRITXOLA

22. ZENBAKIA - 1998.eko URTARRILA - EUSKERA BATZORDEA



*Urte
Berri
On!!*

*Dagoenean Bon-Bon,
ez dagoenean egon*


*Parkoko euria,
urteko ogia;*

AURKIBIDEA

HONELA SUERTATU ZAN	2
HERRIKO ESKOLA	3
ITXAS-ALDEREN BARRIA	4
ALAITASUNA PELOTA TALDEA	5
BAKIOKO ABESBATZA	6
ERREKA EGUNA BAKION	7
IZAN GENUEN BERTSOLARI TXAPELKETA	8
BAKION ERE EUSKERAK (ELKAR) ILANA BEHAR DU	9
BANDEREN ERABILPENA	10
IRAKUR TXOKOA	
ALKARTASUNA	11
ILUNTASUNAREN GAUEAN	12
HIZKUNTZA POLITIKA	
ETA EUSKARAREN NORMALIZAZINOA	13
UDALAK EUSKERA	14
HERRIKOAK HERRIRA PLATAFORMA	15
ESKUAN HATZAMARRAK	16

HONELA SUERTATU ZAN

BAKIDKO IX. IDAZLAN LEHIAKETA



TALDEAK

1. 7tik 10era
2. 11tik 14ra
3. 15tik 18ra
4. 19tik gorakoak

Lehen Maila: 7-10 urte

1. Lehen Saria: Goretexko Bota eta Polarra, Txarto Usaintzen zuen Mutilak lanari.
2. Lehen Aipamena: Xabier eta Katua lanari.
3. Bigarren Aipamena Bi Mendizale Ausart lanari.

Bigarren Maila: 11-14 urte

1. Lehen Saria: Idaz-Makina, Estatu Batuetako Gaztea lanari.
2. Lehen Aipamena, Ziortza Bengoaren Izualdiz Beteriko Gaua lanari.
3. Bigarren Aipamena, Txakur Maiteminduak lanari.

Hirugarren Maila: 15-18 urte


1. Lehen Saria: Mini Katea, Ainara Madariagaren Harreman Okerra lanari.
2. Lehen Aipamena, Bide Luzea lanari.
3. Bigarren Aipamena, Lide Madariagaren Egunon, Auzokide Hori lanari.

Laugarren Maila: 19 urtez gorakoak

1. Lehen Saria: 25.000 pezta, Ez dau moztuko bizarrik lanari.
- Aipamena, Ex Aequo: Azken Bidaia, Sinestu ala ez bakoitzak..., eta Gazteluko Istorioa lanei.

Epaimahaiak
Bakion, 1997ko abenduak 20

Herrietako Eskolak



BAKIOKO ESKOLA BIZIRIK

«Gaur egun Hezkuntza Ministeritzak gure umeak «zentro munstroetara» eramatea bultzatzen gaituenean, guk gero eta gehiago sinisten dugu herriko-eskoletan, eskola txikietan. Bakion holakoa dugu eta harro gaude. Horregaitik, Guraso Elkarteak saiatzen da alde batetik herriko ohituretan parte hartzen, eta bestetik, irakasleekin batera eskola barruko arazoak konpontzen. Ekintza hauek guraso gehienak inplikatzeko balio digute. Aurten, zinemari dagozkion ekitaldiak (irteerak 1go mailatik 6.eraino) eta pilota bultzatzea erabaki du Guraso Elkarteak. Kirol hau bazterturik ikusten

dugu gure herrian eta berreskuratzeko modu bat izan daitekeela pentsatzen dugu. Bi gauza hauek, jantokiaz batera, subentzionatu egiten ditugu. Zeren eta gure eskola txikia den arren, jakin behar duzue jantokia eta garraioa duela.

Gure diru-iturriak honoko hauek dira: Santa Ageda eguna, jaietan ipintzen dugun txosna.

Gabonetako otzara, loteria eta udaletxea. Honi eta gurasoen lanari esker, aurre egiten diegu sortzen diren arazo guztiei».

**Maria Jesus, Bakioko Herri Eskolako
Gurasoen Elkarteko**

***San Iurgi, artoak ereiteko goizegi
San Markos artoak ereinda balegoz***

ITXAS-ALDE DANTZA TALDEA



ITXAS-ALDEk liburu bat argitaratzeko asmoa dau, taldearen 25 urteurrenari amaiera emoteko.

Liburu honetan, 25 urteotan zehar egindako lana azaltzen da, ibilbide guztiaren ikuspegi orokorra emonez. Egia esateko, lan handia izan dogu informazioa lortzeko, batez be, lehenengo urteetako. Baina handik eta hemendik hartutako argibideak biribildu eta eran imini ostean, liburua osotzea lortu ahal izan dogu.

360 argazkiz eta hainbat pertsonen eta ekintzen aitamenez taiuturiko lana dogu. Liburuaren aurkibidean agertzen diran atalak honeexek dira: taldearen urtean urteko historia (hasikerak, garapena, beheraldia, berbizketea eta gorakadea), entsaio-tokiak, dantza irakasleak, musikariak, abesbatza eta antzerki saioak, ekitaldi pribatuak, jendaurreko ekitaldiak, euskal jaialdiak, alkartrukeak eta beste ekintza batzuk be.

Orain, ahalegin hau egin ostean, ez dogu beste itxaropenik liburua zeuen gogoko izatea baino. Inprimatzaileak berak emondako epeari eutsiko badeutso, Gabon inguruan eskuartean eukiteko aukerea izango dozue.

ITXAS-ALDE

Bakioko Euskal Kultura Taldea




BAKIO

Bakotxak bere beharrari, buru ta belarri

ALAITASUNA

PELOTA TALDEA



Baina behar bada, gauzarik xelebreena, partidua bera baino atzeko kuadroetan behatzen (Ikusten) zena zitekeen; umeez, Retegi, Elkoro, Titin, Nagore... izenak erabiliz, heuren arteko txapelketak antolatzen zituzten. Harrigarria!! Ete gaude gure eskola-denboratako zaletasuna pizten?

Eskolarteko kirola eten eginda zegoenean eta era berean XIII. Eskualdeko Gomazko pilota-txapelketa, Bakioko frontoiak oporraldian sartuko zela zirudien arren, geldi egon ezinak bultzaturik edo, beste ahalegintxo bat egitea pentsatu genuen; honen bidez, gazte eta ez hain gazteengan, pilota arloko zirrara piztu gurean, «Gabonatako eskuz-banakako torneoa» antolatu genuen. Ume zein nagusi, mutil zein neska, han bildu ginen, zenbait alditan, izerdi ederrak eta partaidetza, norgehiagoka hutsaren gainetik erakutsiz.

Honek animatzen gaitu, hurrengoan ere, Aste Santuan segurantzean, eskupilotako beste ekitaldi bat egitera (herrikoa bakarrik). Azkenik, lerro hauek erabiliko ditugu «ume ekintzak» Urkitzako Guraso Elkartearen laguntzaz egiten ditugula esateko, alaitasun osoz onartzen dugularik.

Alaitasuna P.T.

Bakion 1998.eko urtarrilaren 8an



Bakioka



Abesbatza

Beste urteetan bezala, Bakioko Abesbatzak 1997ko egin beharrak amaitu ditu. Urtero egiten den bezala «txiki abesbatza»rekin batera gabon kantekin eman genion amaiera gabon eguneko hurrengo igandeko mezan.

Gero herriko tabernetan zehar abesbatzaren izen onaren berri ematen joan ginen.

Urte barriko planen artean Santa Agedako kalez kaleko kantaldia dago.


Hurbilen dauzkagun ekitaldeen artean Otsailaren 11an Begoñako aste Korala daukagu eta horren ostean BAE-k antolatutako udaberriko astea egongo da.

1997ko balantzea oso ona izan dela uste dugu; batez ere Bakioko Aste musikalean egindako ekitaldiarekin. Mungiako abesbatzarekin batera Anton Larrauriren «Bestelako Gudariak» lanaren estrenaldiarekin aste musikari amaiera eman genion, eta adituen esanez arrakastatsua izan zen.

Zuzenean grabatu zen Uztailaren 20an Bakioko Abesbatzak bakarrik egindako kontzertua, lehen esandako abestiaren estrenaldiarekin batera. Egindako compac disc-a laister egongo da salgai. Egindako esfortzuengatik berau edukitzea merezi duela uste dugu.

Abesbatzera integratu nahi direnak ondo errezibituak izango dira. Anima zaitzte;

ERREKA EGUNAREN OSPAKIZUNA BAKION



Urriaren 25ean, hainbat umek hartu zuten parte ohizko Erreka Egunean, Bakion, begirale batzuen laguntzaz.

Uretako botak eta zabor-poltsez ornitutako gazteek, Esteepona ibaiko zati batean, botila, plastiko eta beste hondakin ugari jaso zituzten.

Ekintza honekin, Bakioko Udalak txikienen kontzientzia piztu nahi du, beren ingurua garbi eukitzeak duen garrantziaz.

ARGAZKIA ETA TEXTUA: «Correo» egunkaritik hartua.

ITZULPENA: 6. MAILAKO GAZTEAK.



IZAN GENUEN BERTSOLARI TXAPELKETA



HAUEK IZAN ZIREN FINALEKO ZORTZIAK

BAKION ERE BERTSO AFARIA:

UNAI ITURRIAGA - IGOR ELORZA

OTSAILAREN 20an


**«GORRONDONA» Txakolindegian
Txartelak Kultur-Etxean**

Zatoz!!

BAKION ERE, EUSKARAK (ELKAR) LANA BEHAR DU



Bakioko beste
kultur talde izati
igorritako idatzia



Lerro honen bidez jakinarazoten deusut aurtoongo gastuen kitapena eta egiaztagiariak aurkeztu behar dozuzala, beti be daborduko aurrekonturik gehiena bete badozu. Horretarako, honegaz batera bialtzen deusut bete beharreko eredia.

Berebat, adierazo gura deusut 1998ko urtariraren 15ean amaituko dala datorren urterako laguntzinoak eskatuteko epea: eskabide horretan, bada, urte barri horretarako helburuak edo ekintzak, beraien aurrekontuagaz batera, aurkeztu beharko dozuz.

Beste barik, agurtzen zaitut, adajitasunez, Bakion, 1997ko zinemdiaren 27an.

Alkatea
[Signature]



Bakioko aekri igorritako idatzia.

22 22 1998

13 22

Lerro honen bidez, Kultura batzordearen izenean, eskatu gura deusut AEFK alkarteak 1998rako aurrikusita daukazan helburuak edo ekintzak, kontuan izan daitezuzan.

Beste barik, agurtzen zaitut, adajitasunez, Bakion, 1997ko zinemdiaren 27an.

Alkatea
[Signature]

ederto batean, baina...

Bakion Euskeraren erabilera behera doa; gero eta gitxiago entzuten da kalean, dendan, tabernatan... Bakioko jende batzuek azterketen beharrik ez dabe izan beharrean hasteko, kanpainak bultzatuz, klaseak antolatuz, bertso-saio eta jaialdiak. Lan hori, debaldeko beharra, ez da ondo eskertua izaten sarritan, eta batzutan ez ondo eta ez txarto, bapez!.

Badago Bakion talde bat azken urte biotan inongo dirulaguntzarik jaso ez dauena **aek** da jakina. Azterketa sakona beharko liteke, jakin ahal izateko Bakioko euskera ikasle eta irakasleon pekatua zein den; beste azterketa on bat ulertu ahal izateko Bakion subentzio eta lokal barik lotutea **aek**, Jaurilaritzagaz akordio bat sinatu eta ostean??!

Elkarlanik ez dagoan tokian ikerketak, diru asko kosta arren, alferrikoak dira. Bada sasoia ganoraz eta errespetuz egin dagigun behar Euskeraren mesedetan, alde bagagoz behintzat.

Jonjo Agirre

Idoia Liste


Ondo etorriak azterketak, inkestak, erakusketak... Beharrezkoak izaten dira guztiak, errealitatearen zergatiak ulertzen laguntzeko, neurriak hartu ahal izateko, lan tresnak dira, lehendik dagoenari batu beharrekoak.

Prospektiker izenekoa joan zan eta hurrengo, Siadeco delakoa dator geurera;

Toketan jakoz astoari polainak

BANDEREN ERABILPENA EUSKAL DANTZA ETA OSPAKIZUNETAN

AGINTARIENTA



Gure herri guztietan banderea garrantzi handiko gauza izan dan ezker, herriko banderea, toki askotan ospakizun frankoren ardatza izan da, eta bada oraindikarren.

Askotan, herriko Agintariak herrian zehar egiten dabean ibiltaldietan buru izaten da, sarritan dantzariak be tartean dirala. Eukaristi eta herriko Santu Zaindarien aurrean be erabilten da. Bidasoako Bera, Lesaka, Biasteri, Lapurdi eta Nafarroa Beherako herri batzuetan, adibidez.



Zelan agertzen dan? Ba, Lesakan herriko auzune bi alkartzen dauazan zubi ganean. Errioxa aldean, bertako folkloreaken pertsonaiarik

garrantzitsuena dan «Katxi»-ren ganean. Bizkaian, Agintariena dantzatzerakoan, Garain eta Durangalde osoan, esate baterako, euren herriko bandereagaz egiten dabe dantza hori.

Bandera hareek izaten ebezan buru herrialdearen defentsarako prest egon behar izaten eben gudari konpaniek eta sasoi hareetako erabilpen hareetatik dator gaur egun herri askotan banderakaz egiten diran ospakizun eta desfile ugari.

Unai Beitia - Artzakoa

ITXAS-ALDEko dantzaria



¡Irakur Txokoa!

Idaz lehiaketako lehen saria (7-10)

«TXARTO USAINZEN ZUEN MUTILA»

Bazen behin Jon izeneko mutiko bat, txarto usaintzen zuena. Jonek hamalau urte zituen eta lan bat bilatzen zegoen bere herrian.

Egun batean, denda batek laguntzaile bat behar zuela konturatu zen eta horretara joan zen hau esanez:

-Egunon Josepa! Konturatu egin naiz laguntzaile bat behar duzula eta ni lana bilatzen nagoenez, hona etorri naiz. Eman al zenidake lana mesedez?

-Zelan emango dizut lana hain txarto usaintzen baduzu? Kanpora nire dendatik, naskagarri hori! -esan zion Josepak- Eta ez etorri inoiz gehiago hona!

Eta Jon joan egin zen handik, oso triste, bere etxera.

Jonek ez zekien zer egin ondo usaintzeko, egunero bost aldiz dutxatzen zen, baina txarto usaintzen segitzen zuen.

Jonek dena frogatu zuen baina ez zion ezer egiten, gainera ez bazuen aurkitzen lanik ezer gabe gelditu zen oso pobrea zelako.

Jateko ordua heldu zen eta Jonek bakarrik zeukan gazta zati bat eta ogi apur bat, baina horrekin ez zen betetzen.

Hurrengo goizean, Jon esnatu zenean, jantzi egin zen eta esne bila joan zen merkatura. Merkatura heldu zenean, denek esan zioten batera:

-Puagg! Hobe da hemendik joatea txarto usaindu baino lehen.

Jonek esnea erosi zuen eta bere etxera joan zen negarrez. Bidean atso bat aurkitu zuen eta atsoak esan zion:

-Zergatik egiten duzu negar Jon?

Jon oso harrিতa gelditu zen atsoak bere izena jakin zuelako, baina hala ere erantzun egin zion:

-Ba... negarrez nago txarto usaintzen dudalako eta jendeak «txarri naskagarri hori» esaten didalako. Horregatik nago negarrez andre.

-Nik, ondo usaintzea nola egin, esango dizut. Gauean hazi hauek lurrean landatu. Hurrengo goizean lore gorri batzuk aurkituko dituzu, lore horiek uretan sartu, gero loreen ura gorputzetik bota-esan zion berriro atsoak.

-Eskerrik asko andre! -esan zion Jonek eta bere etxera joan zen oso pozik.

Gaua heldu zen eta Jonek haziak landatu zituen. Hurrengo goizean atsoak esan ziona egin zuen eta ondo usaindu zuen.

Kalera irten zenean, Joseparen dendara joan zen eta esan zion:

-Emango al didazu oraingoan lana mesedez?

-Nola ez Jon! Oso pozik gainera! -erantzun zion Josepak.

ETA HORTIK AUERRERA OSO ONDO BIZI IZAN ZEN JON BERE ETXE BERRIAN.

«FIN»



SAMADI LTELIER REVUELTA

ALKARTASUNA (Bakioko kondairea)

Elezaharrak dinoanez, ez dakigun zein urtetan Asturiastarrak agertu ziran gure itsasaldean; eta ikaragarrizko lapurretak egiteko ustean, ausarkiro sartu ziran gure Bakioko lurretan.

Maltzurkeriaz, ustebagez eta isilean eraso euskuen negargarrizko gau batean. Gureak egon ziran egoera txarrean. Non bilatu indarra, ez bazan alkartasunean?

Bat-batean entzun zan adarraren hotsa. Berehala itzartu zan bakiotarren bihotza. Estualdi haretan bat zan danon agotsa, kanpotar madarikatuei emoteko lotsa.

Zantzoa entzun ostean, hurrengo goizaldean hasi ziran matraka eta burrukea talde bien artean. Bakiotarrak batuta Birjilandako tontorrean, garaile lotu ziran errez ilunabarrean.

Zorionez, amaitu zan gudaketa gordina; betirako agertu zan Bakion zeru urdina. Ziur lortuko geunke guk be, helburu bardina, alkartasunean hareen antzekoak izango bagina.

Antxina ikasi genduan zer dan abertzaletasuna. Baita be, beharrezkoa dala beti alkartasuna. Ez ahaztu inoiz gure arbasoen oihartzuna: horrelan, Bakio izango dala beti txapelduna.

Umezaroan Bailén, Pavia eta Waterloo gure buru kaxkarretan sartu ezin, ha mordoilo! Aitatu barik lotuten zan beti Bakio. Omenaldi txiki bat, nire ustez, gaur joako.

Orduan jazo zan guztia ondo azterturik, besoak zabaldua, gedarka, dinotsuet nik: zer dala eta, gure artean ez dago batasunik? Ez gagoz, gaur be, arerioz inguraturik?

Ahalegindu gaitezkan buruan sartuten lehenen zein lege gorde behar dogun beti hemen: zalantza barik, giza eskubideei egin men. Halan izan daitela «in saecula saeculorum». Amen.

Martin Goitia
1981eko *BAKEA* aldizkarian
(*Iñaki MARTIARTUK* egokituta)

Berbalapikoa

elezahar= ipuinzahar.

ausarkiro= bildur barik.

maltzurkeria= azpikeria, amarrukeria.

ustebagez= uste barik, ezustean.

bilatu= bila ibili.

bat-batean= brastakoan, sostean, itsumustuan.

lotsa emon= norberaganako bildur eta begirune eragin.

matraka= nahaste, akar, istilu, iskanbil, gatazka.

garaile= irabazle.

ilunabarrean= ilundian.

gudaketa= burrukaldi, erasoaldi.

oihartzun= gedar, durundi, deadar.

kaxkar= txiki.

mordoilo= nahaste-borraste, mataza, saltsa.

arerio= etsai.

giza eskubideak= edonork daukazan gitxieneko eskubideak.

men egin= bete, ontzat hartu, esanak (legeak, aginduak...) egin.

in saecula saeculorum (latinez)= gizaldi eta gizaldi guztietan.

ILUNTASUNAREN GAUEAN

Iluntasunaren gauean,
umearen negarrak.

Bakartasunean bakarrik,
amak bertan behera itzita.

Iluntasunaren gauean,
umearen garraisiak.

Amak, bere umearen lotsaz.
Hori, bai amakeria!

Iluntasunaren gauean,
umearen azken arnasea.

Norberaren odola
norberaren buruari ukatutea,
gizadiaren aurka jokatutea.

Iluntasunaren gauean,
euskaldun batzuen saldukeria...

Iluntasunaren gauean...
gau iluna, gau baltza.

Iñaki Martiartu
1987ko urrilean

HIZKUNTZA POLITIKEA ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

Bakio mailako hizkuntza politika egokia, zehatza eta iraunkorra egin behar dogu. Bakion Bakiorakoa.

Euskerearen garapena eta normalkuntza bultzatutako asmoz, euskerea gure nor-tasanaren erakusgarririk nabariena eta garbiena dalako, lehtasunezko arretea emon behar jako.

Euskerearen birreskurapena gure eskuetan dagoala eta ez ondorengoengan jakinda, euskerearen aldeko hizkuntza politika serio baten ezarpen eraginkorra behar-beharrezko dogu. Hau egia bihurtutako bateratasun eta adostasunik zabalena behar dogu herriko erakunde eta eragile bizien artean. Ahalik eta inplikaziorik haundiena beharrezkoa da, argi eta garbi, hizkuntza politika eraginkor hori sortutako eta normalkuntza bidea ibili ahal izateko.

Egingo dan hizkuntza politika honek ildoak eta lehtasunak argiro zehaztu beharko dauz arloka, hau da, euskaldunen arteko euskerearen erabilera bultzatzea, ghetto-kerietan sartu barik. Hortik sortuko dan hizkuntza plangintzeak be horreri lotuta joan behar dau.

Bakioko herriak euskal berbadunei leku egiteak erabilera sustatutea dakar:

- euskerea ondorengoentzat bermatutea.
- euskerearen ohiko erabilera eremuak sendotutea.
- euskerearentzako erabilera eremu barriak irabaztea.
- bizitza sozialean euskerea agoz zein idatziz gotea.

Hizkuntza politikearen oinarria azterketa soziolinguistikoa da. Horren ondorioa, barriz, hizkuntza normalizazio egitasmoa edo plangintza da.

Azterketa soziolinguistikoaren emoitzen arabera eta abiapuntua ezagutu ostean, helburuak mailakatu eta epe labur, ertain eta luzean lortutako izan leitekezan helmugak ipini

behar doguz. Honetan datza hizkuntza politika egokia. Helbururik argiena eta haundiena euskerea arlo, maila eta era guztietan -idatziz zein agoz-gero eta gehiago erabiltzea da.

Azterketa soziolinguistikoak aldiro-aldiro egiten dirala, hizkuntza politikea be, hareen ondoren eta beharizanen arabera birrikusi behar dogu eta egunean-eguneango egoerari egokitu.

Administrazioak garrantzi haundia dauka normalkuntza bidean. Beraren barruan euskera jakitea eta erabiltea bultzatu behar da, era berean hedapen lana egin behar dau herriari begira. Kanpora nahi barrura begira Udalak euskerearen normalkuntza bidean dauan garrantzi berezia azpimarratutakoa da. Udalak berak bideratu behar dau herriko normalkuntza prozesua.

Udalaren aldetik, borondate garbia beharrezkoa da. Borondatea ekintza bihurtu. Euskerearen aldeko ekimen pribatuek euskerearen egoera bera hobetu leikee. Udalaren aldetik laguntza osoa beharrezko dabe horretarako. Udalaren aldeko jarrera politikoari nahi ta nahiezkoa deritxot. Ze, azken baten, euskerea birreskuratutako borondatea herritarrengan lortu behar dogu, horretarako beharrezkoak diran baliabideak ipiniz.

Hizkuntza politika eta plangintza orokorra indarrean ipintzeko, alkarlana eta Udalaren eta beste Erakunde Publikoen laguntza tekniko eta ekonomikoa ziurtatu behar doguz. Birreskuratze eta normalkuntza plangintza horretan, administrazioak eredugarri izan behar dau, herritarren aurretik joanez. Udalerrirako hizkuntza jokabidea sortu ezkerokoa, beharrezkoa da atzean bitarteko ekonomikoak eskueran ipintea.

Buruan argi ta garbi euki behar dogu, euskerea eguneroko bizitzan erabilteko dana. Eskaintza guztiak euskeraz, mezuak, iragarkiak,... diruz lagundu be. Sortuko diran

beharleku barriak euskaldunez bete. Azken baten, euskerearen normalkuntzarako gitxienekoak bete behar dira. Ezin onartutakoa litzake ogi apurrak emotea. Hizkuntza gitxieneko hizkuntza eskubideen orde, euskera zerbitzua erdikineta ipiniko bagendu, esaterako:


Orain arte, euskerearen jakite politikea nagusi izan bada, aurrerantzean erabilereari garrantzi berezia emon behar deusogu. Horretarako, udalerrri mailan, gune euskaldunak sortu behar doguz. Sare eta zerbitzu sozial guztiz euskaldunakaz. Euskeraz egunean-egunean bizitzea dogu helburu. Horregaitik arreta berezia zor eta emon behar jako euskereari. Euskerea adierazpide edo ondareztat hartuten dogun neurrian, hizkuntza berezizat babestu behar dogu.

Hizkuntza politikeak, euskerearen birreskurapena bizitzako arlo guztietarako lortutea ezezik, aldaketa soziolinguistikoa be lortutea ahalbidetu beharko leuke. Norbanakoarengandik hasita. Norberaren hizkuntzearen aldaketea beharrezkoa da eta. Era naturalean jazo eta borondatez izan behar dau. Geroagoko baten, hizkuntza erabilpen aldaketa mailakatu lortu ahal izateko. Herri ekimen eta asmo guztiak, bai gizarte, bai ekonomia, bai kultura edo politika arloan, beharrezkoak dira aldaketa hori lortutako.

Herritarren artean hizkuntzearen aldeko jokabideak garatutea agintari politikoan erantzukizuna da. Eurok oso-osoan alde egon ezean, helburuak lortutako ekintzez, ezin leiteke ezer ganorazkorik egin. Herri borondatea ekintza bihurtu behar dabe agintari politikoek eta edozein arlotan neurriak hartuten dabezan lez, euskera hizkuntza politikan be neurri argi eta garbiak hartu beharko leukeez. Herritarren artean, norberaren hizkuntzaz irudi txarra eukitea ez da normala eta. Horregaitik hizkuntza politika sortutea behar-beharrezkoa da.


Amaitutako hizkuntza politikarik sortuko dan hizkuntza normalkuntzarako plangintzeak hurrengo arlorik nagusienetan eragin behar dau:

- hezkuntza.
- herri administrazioan.
- herri zerbitzuetan (osagilea...)
- kaleko hizkuntza erabilpenean.
- sendiaren barruko hizkuntza erabilpenean.
- udatarrengan.



Iñaki Martiartu
1996ko garagarilean

Udalak Euskara-Teknikaria KONTRATATU DAU:



- **JOSEBA TERREROS GASTON**
- Barakaldon jaioa
- Euskal Filologia Ikasketak
- Itzulpen Masterra (Gaztelania-euskera)
- Irakaskuntzan eta itzulpengintzan aritua

**EA BA! Euskera Batzordetik
gure harrerarik beroena.
DANON ARTEAN EUSKARA BULTZATZEN!!**



*Legearen arabera, Igone Elorriaga, J. Ignacio Sánchez «Peke» eta José Manuel Valdueza Uribe-Butroeko presoak, Euskal Herriko gartzeletan egon beharko lukete.
EUSKAL PRESOAK - EUSKAL HERRIRA*

*Legearen arabera, José Antonio Torre «Medianue» eta José Manuel Legarreta-Etxebarria baldintzako askatasunean egon beharko lukete
MANU ETA MEDIANUE ETXERA*

HERRIKOAK HERRIRA PLATAFORMA

Udan aurkeztu zen Mungian Herrikoak Herrira plataforma (dakizuenez, plataforma hau Mungialdeko herrietako jendeak osatzen du).

Pasatu dira hilabete batzuk aurkeztu zenetik eta nahiz eta ekintza batzuk burutu, euskal presoen egoera ez da ezertxo ere aldatu:

- Legea ez da betetzen
- Gaizok barruan jarraitzen dute
- Tratu txarrak noiznahi pairatzen dituzte
- Baldintzapeko askatasuna ez da ailegutzen
- Eta hainbatek aldarrikatu dugun «Euskal Presoak Euskalerrira» ez da egi bihurtzen.

Bakioko Udalak ere mozio bat onartu zuen, baita Parlamentura bialdu. Baina, antza denez, ez da nahikoa. Herri osoaren lana da legea betearaztea. Beraz, laster egingo diren ekitaldietara gonbidatzen zaitugu.

HERRIKOAK HERRIRA

ESKUAN HATZAMARRAK

LEHENGOTXU ORI

La-la-ra-la-la la-la-la-ra-la-la-ra.
 la-ra. La-la-ra-la-la. la-la-ra-la-la.
 Le-nen-go-txu o-ri pun-ta bi-atz o-ri, bes-
 te guz-ti-en ar-te-an txi-ki-ña dok o-ri. La o-ri.

Hotz garaietan, eskuetan eskunarruak janzten doguz.

Gauzei oratuteko eskuetan daukaguzan HATZAK erabilten doguz. Esku bietako hatzak guztira hamar dirana badakigu be. Horregaitik guk, Bakion, eskuetako hatzei HATZAMARRAK izena emoten deutsegu. Oinetako hatzei, barriz, behean dagozalako edo, BEHATZAK esaten deutsegu. Orduan, eskuan hatzamarrak, oinean behatzak.

Dakigun lez be, esku-oinetako hatzak guztira hogeï dira eta HATZAMAR-BEHATZAK izena dabe.

Baina, badakigu eskuko hatzamarrei, bakotxak zelango izena dauan edo, zelan esaten jaken? Ba, hara:

- TXIKERRA (edo txikia)
- NAGIA
- LUZEA (edo sendoa)
- SENDOA (edo bizkorra)
- LODIA

Bizkaia barruan herririk herri be, hatzamarren izenak era batera edo bestera erabilten doguz. Aurrean dozun izen zerrendatxu horrek gure herrialdean gehien zabalduak hatzamarren izenak dakarskuz.

Zuetariko askok ahaztuta, edo ez zenduezan inoiz entzun, ezta?

Ba, ikasi, erabili eta irakatsi eizuez.

Eta ikasteko erarik errezena abestien bidez izaten dan ezkerro, hor bada, gure amamak txikitan geuri abesten euskun umeabestixua:

La lara la la, la la lara la lara,
 la lara la la, la la lara la la.

Lehenegotxu hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 txikerra dok hori.

La lara la la,...

Bigarrentxu hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 nagia dok hori.

La lara la la,...

Hirugarren hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 luzea dok hori.

La lara la la,...

Laugarrentxu hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 sendoa dok hori.

La lara la la,...

Bostgarrentxu hori,
 punta behatz hori,
 beste guztien artean
 lodia dok hori.

La lara la la,...

Amaren pozgarri
 heu haz bene-benetan,
 egik ba lolo laztana
 neure besoetan.

La lara la la,...

